



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2021eko uztailaren 6ko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2021eko uztailaren seian, zortzi eta erdietan, Herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : CHAMALBIDE Corinne, M. GOICOCHEA Iñaki,

Bilkurako idazkari izendatua izan da : IDIART Claudine

Deialdiaren eguna : 2021eko uztailaren 2a

Afitxatze eguna : 2021eko uztailaren 2a

1.ERABAKIA BESTA KOMITEAREKIN HITZARMENAREN BAIEZTATZEA

Nomenklatura : 6.1.2

Auzapezak oroitarazten dio Herriko Kontseiluari Besta komitearekin urteko partaidetza hitzarmen bat izenpetua dela Besta Komitea eta herriaren artean, herriko besten kari izan ditaizken alkoholizazio gehiegikerien sor ditzaketan arrisku guzien abisua emaitako. Hitzarmen horren irizpideen errespetatzeari esker Besta Komiteak goizeko 4arte ostatuaren idekitzeko salbuespenezko baimena ukanen du.

Auzapezak proposatzen du partaidetza hitzarmen horren izenpetzea 2021 urteko.

Herriko Kontseiluak, Auzapezaren azalpenak entzun eta deliberatu ondoren,

- **BAIMENTZEN DU** Auzapeza, Besta Komitearekin partaidetza hitzarmenaren izenpetzea 2021 urteko, eta horren gauzatzeko beharrezkoak diren pauso guzien egitea.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balizko boz kopurua : 13

ALDE : 13

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan.
Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2021eko uztailaren 21ean
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2021/07/22an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2021/07/22a